

Karmelo'ko Ama Birjiñea'ren Oñetan



Amabost iroiren (miňutu)

eta

Karmelo'ko Ama Birjiñia Deun-deunari

:: IKUSTALDIJA ::



Eleixa ta Lagundijsa'ren bayetzaz


1918

ATV

NGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN

Zornotza. — (Bizkaya)

1.944



Karmelo'ko Ama Birjiñea'ren Oñetan



Amabost iroiren (miñutu)

===== eta =====

Karmelo'ko Ama Birjiñia Deun-deunari

:: IKUSTALDIJA ::

BIJOTZ - DEUNETAKO

LUDOBIKO, Karmeldar - Oñutzeko Abak

ERDERAZ EGIÑA




ELEIXA TA LAGUNDIJA'REN BAYETZAZ

Saspigarren Agerraldija. — (Gero Euzkeratuba)

1918

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN
Zorñotza. — (Bizkaya)





Karmelo'ko Ama Birjiñea'ren ospagarri

Jaungoikua'gandik yatorkez sarri azi ta landara tzikarrai, pistien edo aixiaren ega-lak edo txoritzubaten pikua, eruan dagijezan urriñetara ta erne daitezañ puskaturiko gaztelubetan edo birrinduriko orma bitartietan; eta ȝezta egongo, Ama neuria, bijotz elixale bat, Karmelo'ko asi txatxar au eskuz-esku eruango dabena, arimetan erne ta loratu daitian?

Ziñestuten dot, neure Jaun eta Jaungoikua'k zuzenduko daula egite ori; bada, udagoyenian zugatzetatik jausten dirañ orbelak beaztuten eztauzan lez, uste ixango dau, Andra neuria, zeuri onerazpen gogotsubañ begiratzen deutzuben arimak, egingo dabela alegiña idazti (liburu) onen orrialdiak zabaldubak ixan daitezañ alde gustijetañ; bada, idatzi dira, giȝadi gustijak maitetu zaizan;

*mundu gustijak bedeinkatuba ixan zaitezan:
begi gustijak begiratu dagixuben eta bijotz
gustijak samurtu daitezan zeugatik, Birjiña
maitia ta Karmelo'ko Ama neuria.*

*Auxē da zeure Semia'ren gurari bakarra,
ta itzaltsu, apaltasuñ bete-betiaz, muñ egi-
ten deutzu zeure oñetañ.*

Egilliak.





Amabost iroiren (miñutu)

Karmelo'ko Ama Birjiñea'ren Oñetan

AMA BIRJIÑEA. Etorri gustijok nigana, ta eruango zaitubet neure Karmelo'ko mendi Deunera ta alaitasunez beteko dodaz zeuben bijotzak. Etorri seme neuriak; bada, ni naz Ama errukitsuba, bildur Deunaren eta itxaropen gozuaren maitetasun ederra. Ni'gan dagoz onbidia ta ondo bixi ixatia. Nik, zugatzak lez, luzatuten dodaz adarrak eta seme - alaba gustijak artzen dodaz neure kerizpian.

ARIMEA. Neure Birjiña maiña, Karmeloko' edertasuna, bijotza darijodala nator zeure oñetara. ¡Ze ederto egoten-da emen, Ama neuria! Neketuta dagon bideztija zugatzaren kerizpian egoten dan lez; egarri dana iturri-onduan egoten dan lez; ume-txua amaren bularrian lez, ta bijotz atse-

gingarrijaren onduan egoten dan lez... ¡ze ederto egoten-da emen! bixi ixate ta atsegijaren oñetan. Zeugana nator Birjiña Karmel'darra; begiratu dazu zeure begi errukitsubokaz. Negarrezko zelai onetan mingarrijak dagoz; arerijuak beti zirikatzen gaitube, aragija beti asarre; mundua, gogapen deungien sutan erretan; beti eztabadaka guzurrakaz ta berekortasunaz, andinayagaz ta atsegintsuba ixateko egarrijaz... ¿nok aldenduko nau ainbeste arerijoen artetik Ama neuria?.. ¿Nok?

AMA BIRJIÑEA. Ene alabea, munduko zarata deungietatik aldenduta zatoz niga-na, Ama'ren bijotzaren billa, gaizkatu zagridazan zeure arerijo, mundua, diabrua ta aragijagandik. ¡Ondo egiña arima neuria! Atsedendu zaíte neure bijotzaren ganian... ez bildurtu; nire bijotzaren onduan eztira eratuten ekaitzak (tenpestadiak); ezin dau ezer egin diabruaren gorrotuak; baketuten dira gogo gaitzgarriak eta ezta entzuten munduko durundi ta zaratea. Atsedendu zaítez neugan; zure Ama, ta ganera, zeru ta munduko Erregiña naz. Zeruko Erre-

giña ta bertako grazija ta bendeziñua emoten dodazana; lurreko Erregiña ta bijotzak gordeten dodazana; munduko Erregiña ta indar gustijak menperatzen dodazana. Neure oñetan lotuta daukadaz diabrua ta bere lagunak... ez bildurtu. ¿Ikusten dozu eskubetan darabildan kutuna edo eskapularioa? ¿Ikusten dozuz bere lokarri bijak? Bada, gokaizto edo diabrua lotuteko dira, nai dauna egin eztayen. Ta oyal zati bijak dira nire seme-alabaen bijotzak estaltze-ko, arerijuak euretan sartu eztaítezan eta zirikatziak aldendu eztaidazan neugandik.

ARIMEA. ¡O ze ona zara neure Erregiña! Orain ulertzen dot, zeure Karmelo'ko ixenak daukan indarra, zelai negartsu onetan dagozan arimak zeuganatzeko, bixi - ixate aldakorretarako ta gogapen galgarrijak zuzentzeko. ¡Zeure kutun Deuna! Bera-da zar ta gaztien eta irabazbide gustietarikuen bijotzak zeure oñetara dakazana; gustijak datozen zeugana, Andra ta Ama neuria, ezjakíñak eta damudunak... gustijak bedeinkatzen zaítube, gustijak abesauten(kantaten) deutzube itxaropena,

bixi-ixatia ta bake-gozua zareala. ¡Zure kutun Santubak! ¡Zeinbat negar ta mingarri ibitú dauz, ta zeinbat bijotz samin gozatu dauz! ¡Naibage egunetan, zeinbat gogo txar ibitú dauz!.. ¡Zeinbat arima gaizkatu dauz! Karmelo'ko Ama, mun egiten deutsat zeure kutunari, neure bijotzaren ganian estuturik, ziñeskintza ta maitetasunez beterik, eta neure bijotz ta arimeagaz diñotzut: ¡eskerrak Ama neuria! ¡eskerrak kutunagaitik! ¡eskerrak asko!

AMA BIRJIÑEA. Erregiña ta Ama naza-lako emon neutsan kutuna neure otsein Stock'tar Simon'i, gomutaratu ta artu nagi-en, neure seme ta lagunkidien artian, Erregiñatzat eta Amatzat. Kutuna da nire anditasunaren ezaugarrija; maitetasunaren argitasuna; erakusten dau nire Erregiñatasunaren anditasuna ta Amatasunaren sa-murtasuna. ¿Ete dakixu zer dan zinta bijoen ezakurea? Gogoratu Ama batek zer egiten daun bere semiaz; ekarten dau beragana; estututen dau mosuka besartian; emoten deutso bularra elikatu ta aspertu daitian, eta gero loaldi gozo-gozuaz euki-

ten dau bere altuan. Zintxa bijak dira neure beso bijak; gozo-gozo besartetzen dabenak; indartsu neuganatzen dabenak; seme ta lagunkidiak samurtasunez besartetzen da-bezanak; nire maitetasun eta anditasunen egapian lo dagozan gustijak zaintzen da-bezanak; orrek dira nire besuak. Orbanbagiak dira nik neure kutunaz ixendatzen dodazan bijotzak. Alaba neuria, *pone me ut signaculum*, ipiñi nagixu zeure bijotzaren ganian, zeure Ama ta Erregiñaren ikur (sello) bat lez... bada, nik eskiñi dot... NIRE KUTUNA ALDIAN DABELA ILTEN DANA, EZTALA NEKETUKO INPERNUKO SUTAN. (1).

ARIMEA. ¡Ze gozua da niretzat zure berbea, Ama neuria! NIRE KUTUNA ALDIAN DABELA ILTEN DANA, EZTA NEKETUKO INPERNUKO SUTAN! Zure berbeak eztau uts emongo; zeruko Erregiñea'k eskiñi dau; Jaungoi-kua'ren Ama'k eta gixonak egindako ziñia (juramentuba) da; Elixe'a'k ezaututen da-ben eskintzea-da; ta ganera, mundu gus-

(1) Ama Birjiñeaak esan eutsan Stock'tar Simon Deunari.

tiko semiak ziñesten dabena. Berba ori, zeruko osagarrija, zeruko argija, zeruko berua, gozua ta deuna da bijotzentzat... ¡Aintza (glorija) zeuri Karmelo'ko Birjiñea.

AMA BIRJIÑEA. Baīta eskiñi dot Garbitokitik (purgatorijotik) ataratia (1) ildaurrengo larunbatean, neure lagunkide kuttundunak, *Oficio Parvo* (2) otoya egunero egiten dabenak; eta irakurten jakin ezik, egubazten eta larunbatetan baru egiten dabenak, edo autorliak esaten deutsana egiten dabenak, barau ezin egin danian. Baña gogoratu alaba neuria, nire kutuna eztala errukitsuba, bere egapian dagozala edo aldian darabillela bururatubaz, *pekatubak* pekatuben ganera egiten dabezanentzat, neure ontasuneri lur - jo erazota. Nik eztot gaizkatzen indarrez, nai-ta-nai-ezean. Nire Kutuna darabillenak, irabazi biarko dauz, neure maitasuna ta egapia.

(1) Birjiñea'ren berbak Aita Santu XXII'garrren Juan'eri.

(2) Irakurten jakiñarren, *Oficio Parvo* otoya ezin egin danian, autorliak ixentaten dabena egingo da.

ARIMEA Ama gustijen ganetiko Ama zara; bijotz utza; maitetasun utza; gustiz errukitsuba, ta ganera, Zeuk, Ama neuria, emon deuskuzu kutuna errukitsuba zareala jakin dagigun. ¡O Ama'ren maitetasun *erijotzia baño senduagua*, mundu onetan ez illobijan (sepulturan) amaitzen eztana! ¡O maitetasun indartsuba! Zuk urratuten dozuz erijotzako lokarrijak; idigiten dozuz garbitokiko (purgatorioko) atiak, jatziten zara an neketzen dagozan arimakana; billatzen dozuz kutuna erabilli ebenak eta zeruratzen dozuz... ¿Ete dago arimarik bedeinkatzen etzaituzanik? · ¿Maitetuten etzaituzan bijotzik? ¿Zeu gomutaratubaz arnasa atsegintsuba iruzten eztabenik, Karmeloko Ama Birjiña Deun-deuna?

AMA BIRJIÑEA. Ondo diñozu Ama gustijen ganetiko Ama nazala; gustijen gane-
tik nago samurtasunian eta eskabidiak egiteko neure seme ta lagunkidientzat;
egapetuten dodaz bixi-ixatian; lagunduten deutset erijotzaurrian eta azkatzen dodaz Garbitokijan. Kutunaz zaintzen dodaz gorputzak; aldeztuten dodaz arimak; la-

guntzen deutset galbidieta eta arimearen estutasunetan. ¿Nor-da nigana etorri ezkerro atsegindu ta poztu eztana? ¿Zein-da deitu deustana, ta kutunduna ixanezkerro erantzun eztautsadana? Ama batek beti erantzuten badeutso semiaren eskabidiai, Ni, Ama gustijen ganetiko Ama ixanezkerro, ¿enaz juango neure semien eta lagunkide (koprade) bijotzékuen eskabidiak entzutera? Noizbait esango zenduban, zure otoyai etxakela jaramon; ¿baña, otoi orrek egin ete ziran ziñeskintza ta apaltasun betiakaz? Alaba neuria, lurreko otoyak eztira eltzen zerura maitetasun barik egiñak ixanezkerro; biar dan lez egiñak ixanezkerro, Semia'k eta nik ezin geinke aiztu ez atzeratu eskiñi genduban berbea. Eskatzen dabenagan dago utsegitria edo paltia, ez nigan; Ni, eskarrak (grazijak) emoten dauzan eskubideduna naz.

ARIMEA. Autortzen dot Ama mañia, ta neure maitetasunaren Erregiñea, Zeu ixan zareala nire egijazko Ama, ta etxatzula ezer gelditzen egiteko. Ta jau naibagia! ni enaz ixan zure egijazko alabea: enaz

bíxi-ixan biar dan lez; nire eskarijak tartegarri ixan dira; nire biguntasuna utsa, ta erlejiñotasuna oso erakutsija. Baña etzaitut nai minberatu geyago, Karmelo'ko Ama neuria; aurrerantzian egingo dodaz alegiñak zeure alaba ona ixateko; zeure kutunak estalduko dau nire bijotz apal, elixale, orbanbageko baketsuba. itxaroten dot, ez neugan, aldakorra ta txarrerako gertuba nazalako ta makala arerijuai arpegi emoteko. Itxaroten dot zeugan Ama Birjiña Karmeldarra...; ia boda, neure aldeztallia (depentzoria), begiratu zeuria dan arima oni; begiratu dazu ama maitia; zure begiratzia da nire begijen argija; arimearen bakia; bijotzaren alaitasuna (alegentzija) ta goguaren indarra... begiratu ta onetsi edo bedeinkatu nagixu, Ama.

AMA BIRJIÑEA. Ni beti nago neure seme ta lagunkide gustijai begira... eztodaz iñoz aztuten. ¿Zelan aztuko dodaz munduaren erdijan burruka ta naibageturik dagozanak? ¿Begiratzen deutset eta ones-ten (bedeinkatzen) dodaz. ¡Alaba maitia,

naibagietan negarrez zagozanian, Amak begiratzen deutzu ta onesten zaītu! Ta ez bildurtu. Nire kutunaren zintak bijotzetatik-bijotzetara berbaldi gozuak daruezanak dira; semiak niri euren naibagiak diraustez, ta nik atsegiñak biraltzen deutsedaz; atsegin orrek, semien bijotzetatik nirera dakaz maitetasun garbijak, eta nire bijotzetik eurenera daruez, argija, berua, indarra, errukija ta oneraspna (deboziniua). ¡O alaba maitia, ez iñoz egon maitetasuna ta indarra daukazan kutun ori soñian eztozula!

ARIMEA. Ama Birjiña garbi - garbija, itxasoko ixarra ta neure Erregiñea; nire bijotza eskarrez ta maitetasunez beteta egon ezker... ¿Zer nai dozu Ama neuria? ¿Zer egingo dot erakusteko neure oneraspna ta eskarrak? Zeuria-da nire bijotza; zeuria nire gogo edo arimea; zeuria nire bixi-ixatia; zeuriak nire bijotzaren bultzadak, gogapenak (pentzamentuak), berbak, lanak eta gurarijak; zeuria da nire ixate gustija ta gustiz pozez nago betiko zeuria nazalako. Kutun (eskapularijo) au

ixango-da beti gomutara ekarriko deustana, nekezalia ixanarren, zeuria nazala, ta Zeu Andra ta Bakalduna (Erregiña) zareala; neure Bakalduna, neure Ama, neure gustija...

AMA BIRJIÑEA. Atsegintsubak dira agertu deustazuzan maitetasunak, eta eskatu nai deutzut zerbait maitekorra ta erreza ixango-dana. Asko zor deustazu; baña; ezteutzut larregi eskatuko. Alaba neuria, arima neuria, bijotz neuria, ¿zegaitik eztauakazu niretzat ordu-lauren aste bakotxian? ¿Zeinbat aldi galtzen dozuz apainketa iraunkorretan, sarri zeure arimearen kaltez? ¿Etxatzuz gelditzen niretzat uskerijan eta alperkerijan igazten yatzuzan amabost iroiren (miñutu) batzuk?.. iroiren (miñutu) batzuk, nire elixan ezpada, zeure etxian, beste edozein elixatan, neure irudi baten oñetan jarritā; amabost iroiren neugaz berbetan, alkarri maitetasunak agertzen. ¿Eztauakazu ezer Amari agertzeko?

ARIMEA. Egija Ama maitia; iroiren edo miñutu bat ezeze, ordubak eta egunak-be galdu dodaz. ¡Ze ona zara neure gogo-

ko (arimako) Andrea! Ain gauza gitxi eskatubaz lausotuten dozu nire adimena... ¡Iroiren (miñutu) batzuk! ¡Uskerijetan iga-zi yatan aldija! ¡ezetarako biar ixan ezto-dan aldija!.. Auxe eskatzen deustazu neu-re bixi-ixatiaren jaubia ixanarren! Bai Ama neuria, pozez egingo dot zeugaz berbal-ditxu bat; iroiren (miñutu) batzubetako berbaldija ¡O, nor bixi-ixan leitekian mun-dutik eta munduko gauza askotatik alden-duta, zeure oñetan beti egoteko! Ta au ezin dalako, artuko dodaz amabost iroiren (miñutu) zeugaz egoteko, zeure elixan, neure etxian edo aldodan lekuban.

AMA BIRJIÑEA. Eskatu nai deutzut lora-txu bat geyago, eskargarri; nai dot arima laztana ixan zaitezan neure kutunaren eta Karmel'darren Belduba (Apostoluba); egi-xuz alegiñak, gustijkak ezautu nagijken; gustijkak erabilli dagijken, batez-bere umiak, kutun gaizkatzalle edo salbagille ori. ¡O umiak! ¡errukituten nayake! ¡Ze min-beratuba daukat bijotza eurak buruban dodazala. Betoz umiak neugana; umiak nai dodaz; euren bijotzak eta gogoak edo

arimak gorde nai dodaz; egixu alegiña, ama gustijak ipiñi dayuben nire kutuna seme-alaba gustijkei gorde dagijen gatxikeza (iñozentzia). Pekatarijak, arima onak, galbidian dagozan bijotzak eta gexuak, erabilli biar dabe nire kutuna. Zuk egin biar dozu alegiña. Osategijetan eta kati-gutegijetan dagozan gaixo gustijak jantzi dagijela nire kutun deuna. ¿Eingo dozu alegiña arima laztana? Zeure aldetik al dozuna egitia bakarrik eskatzen deutzut, zeure ondasunak eta bixi ixatiak lagunduten deutzuben eran.

ARIMEA. Ona da eskatzen deustasuna. Mundu gustijak maitatu dayala Karmelo'ko Ama Neskutsa (Birjiñea); mundu gustijak erabilli dayala bere kutun deuna, ta kutun ori munduan zabaltzia ixango-da gaurtik nire alegiña, nire gurarija; artuko dot egipide edo obligaziño ori, Ama neuria, zeugana dodan zorra ba'litz lez.

AMA BIRJIÑEA. Berbatxu bat geyago alaba neuria. Azkenez egiten deutzut es-kabidia etzaitezala iñoz ibilli kutun barik; iñoz-bez alaba maitia; orixe ixango-da

maite nozula igargarrija. ¿Esango ete deustazu gogait eragiten deutzula soñian erabiltiak? ¡O alaba neuria! ¡Zeinbat mingarri jazoten-da munduan! Baña, zerubidian jarteko diran gauzak, ezebezak ixanda-be, gogait erazoten deutse askori. ¿Ta zuk ezin dozu nigaitik, Ama ta Erregiña nazan aldetik, kutunaz anditasuna ta bijotza emon deutzudazana ixanezkerro, ezin dozu erabilli beti kutun ori zeure bularren ganian? ¿Ain asko galarazoten ete deutzu neure maiftetasuna ta anditasuna erakusten dabent gauza eder orrek? Egija da eskubidua daukazula kutunaren ordez domiña erabilteko; baña gogoratuzu nire Semia'ren eta nire gurarijak kutuna erabiltia dirala. Baita zeure eskarren ezagarri juan biar zara larunbata (sapatu) gustijetan nire seme Karmeldarrak *Salbia* abestuten edo kantaten dagozan eleixara, edo zeuk egin eskarija gozotsu elixa orretara juan ezin ba'zara: Egixu alegiña illean bein Jaunartzera ta ibildeunara (prozeziora) juateko, nire semien eta lagunkidien elixetako ekanduba dalako. Ikusten dozu,

alaba laztana, ezteutzudala eskatzen zalla dan gauzarik, nik kutunaz emoten deutzudazan eskar ta onuren ordez.

ARIMEA. Zeuria naz Karmelo'ko edertasuna. Zeugana biurtu nazan ezaugarrija ixango-da, kutun au iñoz ez istia. ¡O neure Karmelo'ko kutun deuna! ¡etzaitut itxiko! ¡bai-zera! zeuk gordeko dozu nire bijotza ta nire bixi-ixatia; zeuk lagunduko deustazu neure naibagietan; zeuk emongo deustazu zirikatziak (tentaziñuak) aldentzeko indarra, arnasea makal-aldijan ta argija neure goguaren illuntasunetan. ¡Karmelo'ko Ama Neskutz (Birjiña) laztana, zeuria-da nire bijotza, zeuria nire bixi-ixatia, ta zeuria nire ixate gustija! Belaunikotuten naz zeure oñetan, zeure ontasun gustijak ezaututa: nik apaltasun (umildade) gustijaz ta bijotzeko maitetasun gustiz zintzuaz, abestuten (kantaten) deutzut: *Salbe Erregiña*, Ama errukitsuba; neure arimaren bixi-ixatia; bijotzaren gozotasuna ta neure itxaropena, negarrezko erbeste onetan. Begiratu dazu errukiz Ama neuria; enagixu itxi... enagixu itxi

gurtuten (adoraten) zaitudan Ama; bada, Zeu barik, ḡzer jazoko - da nigaz? Zeu barik elitzake egongo osagarririk nire deungekerijentzat. Ama zara ta enozu itxiko; kutun onek gomutaratuko deust beti zure maitetasuna, zure begiratze argija ta egaperatzia. Itxaropenez nua; baña, eskatzen deutzut onetsi (bedeinkatu) nagixula, ta zure oneskunak emongo deust ziñeskintza sendua; maitetasun sutsuba ta itxaropen iraunkorra. Agur Ama; zeure oñetan isten dot neure bijotza, gordeixu. Agur, gorengo Bakalduna (Erregiña) ta Karmelo'ko Ama errukitsuba.



KARMELO'KO AMA BIRJIÑA DEUN - DEUNARI
: : : : IKUSTALDIJA : : :

**Anaikidiaq astian bein egin biar
dautsena.**



Zor dogun eskarra

Benetan zor deutsaguz eskarrak Ama Birjiña Deun-deunari kutuna darabilgun gustijok, kutun au dalako altsuba, maītetsuba ta galbidietan beti laguntzen deuskuna; bada Birjiñiak berak, samurtasuna ganezka ebala, ekarri euskun zerutik, geu zaintzeko. Karmeloko kutunak erakusten dau, ama baten bijotzak egin leikiana maītetasunaren indarrez. Gustiz altsuba da maītetasuna... beti ixan oi da garaitsu. Ama geyenak dauke ondasun indartsu ori mirarizko egitiakaz Ta au olan ixanezkerro lurreko amakaz ēzer ixango da zeruko Ama'ren maītetasuna, grazijaz gustija aldabenarena? Bera ixanik maītetasun eta ondegite edo karidade utsa dan Jaungoikua'ren Ama, gustija egin leike, beti ta garaitsu. Kar-

melo'ko kutuna, bere jatorrija, indarra, ixaarea ta ontasuna, bijotzaren berotasunian ikasi biar dira; ama baten bijotzaren onduan; Birjiñea'lako Ama'gaz. Birjiñea'k, bere kutunaz artu dau indarra ta maiñetasuna. Esan dau: Nire kutuna darabillenak eztau ezautuko inpernuko suba. Diabruak eztau kenduko Birjiñearen eskubetatik. ¿Emon leikian geyago Birjiñeak? ¿Ta zer eskatzen dau kitugari? Uskerija, ezebeza..... eskubidia daukan eleisgixon batek ipiñiriko kutuna erabiltia... ezebez geyago.

Eskerrezko kitugarri ori itxaroten eban Birjiñea'k bere seme ta lagunkideakandik. Bijotzak, berez datorrena, berez jayoten dana nai dau kitugarri. Zor ori ordaintzera edo pagatera dua Birjiñea'gana Ikustaldi au.

Munduan ekandu ona bada ikustaldija egitia, mesedia zor yakonari, ¿zegaitik egin ez astian bein Karmelo'ko Birjiñeari, beragandik kutuna artu dogun seme ta lagunkidiak?

Egilia.



Damutasuna agertzeko Otoya

Neure arimako Jesus, neure Jaungoikota Berreroslio (erredentoria), zeure oñetan belaunikotuta nator, neure obenen (pekatuben) parkamena eskatzera.

Parkatu, Jesus neuria, parkatu, etzaitut geyago irainduko-ta (opendiduko); kurtzian josita ta gorputza puzkatuta zakustazanian, lotsatuten naz, gogoraturik zeure mingarri orrek, nire obenakaitik dirala; ta nire arimeak, nigana dozun maitetasugaitik, ikurtonduta (sakramentauta) ikussten zaituzanian itxaroten, egunetan, illebetietan eta urtietan, ikurtoki (sagrario) basterrian nire bijotzari deika, lotsatu ta lausotuten nabe neure deungekerijak. Parkatu dazu, Jesus neuria, zeure erruki bardinbagiak nai daben lez; damu naz Jauna Zeu irainduba (opendiduba), neure Jaungoikua, ontasuna, maitasuna ta bixi-ixatea

zarealako; damu naz Jaungoiko neuria, nire pekatubakaz, bijotza galduko zalako geiztokiko (inpernuko) sugarretan. Zeure odola ta zeure bijotz gozuaren atsekabiak, **Gaizkatzalle (Salbadore)** maitia, eztaitezala ixan ezebezak niretzat; gaizkatu 'nagixula Jesus neuria; lagundu dazu zeure Jaungoikozko grazijaz; ori barik ezin dot ezer egin, enaz ezer; orregaz gustija egingo dot; zeure laguntasunez eskintzen deutzut etzaitudala geyago irainduko Jaungoiko maitia. Ez Jesus neuria, ez; ez geyago obenik (pekatutik); zeuria naz; zeuretzat jayo nintzan. ¿Zer nai dozu Jauna nigandik? ¿nire bijotza? ¿nire bixi-ixatia? ¿nire gogapena? ¿nire gurarijak? Gustija dot zeuretzat Bakaldun edo Errege neuria. Zeure eskubetan jarten naz, ta zeure errukitasunaz baketuta, uste dot ikusiko zaítudazala ta zorijontsuba ixaugo nazala zeugaz zeruban.



Karmelo'ko Ama Birjiña Deun-deunari Ikustaldija

Karmelo'ko neure Ama gozo-gozua: banatortzu zeu ikustera, gomuta ixateko zeure lagunkidiekaz dozuzan biguntasunak. ¡Ai Bakaldun (Erregiña) samur - samurra ta neure arimearen bixi - ixatia! Zeure eskubetan eta neure bular ganian ikusten dodazan kutunak, gomutaratzen deustez zeure maiñetasuna ta samurtasuna. Esan zenduban kutuna dala osasunaren ezaugarrija, galbidietan laguntasuna, gauza baketsuba, ta bera soñian dabela ilten danak, eztauzala ezautuko geiztoki edo inpernuko subak (1). Onek berbok, neure arimearen Ama, itxaropen gozuak dira nire bijotzerako. Kutun bedeinkatuba, zeure almenaren (poderearen), eta erruki sutsubaren ezaugarrija da; ¿zeren bildur ixango-da nire arimea puzkatzen eztan oyal onegaz jantzita? Gexoturik indar-

(1) Ama Birjiña Deun-deunak, Stock'tar Simon Deunari esan eutsazan berbak.

getu, ta atsekabian aurkitzen banaz, kutunaz daukat osasunaren ezaugarri bat; nire aurrezka badatoz zirikatzen (tentaten) mundua, aragija ta diabrua, kutunean aurkitzen da galbidiak aldentzeko laguntasuna. Marija nire alde ixanezkero, ¿zer egin leike iñok nire kaltez?

Ainbeste arerijoen artian, nire bijotza bakietsu egongoda kutunak diraustalako neurera ama zareala, ta Ama ixanezkero, eztozula iñoz laketuko zeure semia galtzia. ¿Ezta egija Ama maitia? ¿Ezta egija neurera arimaren Bakalduna, nire bijotza zeurialez gordeko dozula? ¡Ai Ama laztana, ze onazara! ¡ze bijotz samurra daukazu! ¡O Karmelo'ko Bakalduna! ¿Zegatik ezaitut ezautu lenago?

Zure ondotik juan-orduko, nai deutzut eskatu grazija bat, au-da, nik, lagunkide zintzo onek, ikustaldijak egiten deutzudazan lez, Zuk bere, Ama neuria, egin daiztazula, Andra ta Bakalduna lez, erijotzako atietan egongo nazanian. Enaixu itxi atsekabeko ordu atan; gomutaratu zeure semia nazala, il naitian zorijonian zure maitetasunaren laguntasunaz; Ama'ren erruki gozatsubaz.

Karmelo'ko Ama Birjiña Deun-deunaren Gomutagarrija

¡O Karmelo'ko Ama neuria ta Bakaldun maītagarria! gomutaratzen dodazanian zeure kutunaz egin deustazuzan mesede eskergarrijak, lausotuten da nire bijotza, neure arimearen Ama. ¿Zer emongo deutzut mesede eskergarri orren ordez? Neure bijotza, Bakaldun neuria; neure bijotza, nekezaliarena ixanarren, nai dot zeuretzat ixa daitian; zeuretzat beti... enaixu itxi Ama neuria; gomuta ixa, kutunaren bidez nazala zeuria; gomutaratu nire bijotza kutunaz alkartuta dagola; gomutaratu, Ama maitia, zeure lagunkidia nazala; ez aztu neure itxaropena ta arima neketuben egapia zareala; negarrezko erbeste ta mundu zirikari onetan gagozala... ezteyela, Bakaldun (Erregiña) neuria, arerijuak iñoz orbandu nire arimea... eztaidala iñoz galdu zintzotasuna zeugana dodan maitetasunian. Zeure laguntasunaz, Ama, ixango naz garaitsu ziriketa (tentaziño) gustijetan. Begiratuten badeustazu begi erruki-

tsubakaz, bixi-ixate ta itxaropen neuria, arerijuak ezin ixango nau galdu. Lagundu nazu... lagundu nazu Ama neuria; enaixu itxi... begiratu dazu errukitsu... erakutsi Ama neuria zareala, ta nik egingo dodaz alegiñak, zeure seme ta lagunkide zintzua ixateko. Ama zarealako, zeure bijotz errukitsuba atsedengarri (deskantsugarri) dodala, bakez ta alaitasunez (alegrijaz) betterik nua. Agur Karmelo'ko edertasuna. Agur zeruko Bakalduna (Erregiña). Agur Ama maitia. Agur.

Agur Eskartsubak

1.^a Karmelo'ko Ama neuria, onetsija (bedeinkatuba) ixan zaitezala eta goratu zaizela Aingeru, Deun ta Jaungoikozko gustijak zeure kutuna emon deustazulako.

Agur Marija... (1).

(1) Egun bakotxian Karmelo'ko Ama Birjiñeari saspi *Aita gure* ta *Agur Marija* esateko ekandu onuratsuba daukenak, sartu leyez bitartietan onek «AGUR ESKARTSUBOK» *Aita gure* bat bakotxian.

2'gn. Karmelo'ko Ama neuria bedeinkatuba ixan zaitezala ta goratu zaghizala Gar-aingeruak, Deunak eta Jaungoikua'ren egapeko gustijak, zeure kutunaz zarealako nire arimearen osasuna.

Agur Marija...

3'gn. Karmelo'ko Ama neuria, bedeinkatuba ixan zaitezala ta ospetu zagixela Bakaulkijak (Tronuak) Deunak eta Jaungoikua'ren egapeko gustijak, zeure kutunaz egaperatuten nozulako galbide (peligrus) gustijetan.

Agur Marija...

4'gn. Karmelo'ko Ama neuria, bedeinkatuba ixan zaitezala, bein eta anei (milla) bidar, ta ospetu zagixela buru diranak, eta Deun ta zerubidian dagozan gustijak, zeure kutunaz aldeztutenean nozulako arerijuena zirketa artetik.

Agur Marija...

5'gn. Karmelo'ko Ama neuria, ta neure bijotzeko Bakalduna, bedeinkatuba ixan

zaítezala, ta goratu zagixela kerubiñak, Deunak eta Jaungoikua'ren legepian jarraitzen daben gustijak, zeure kutunaz nire arimearen bakegarri ta alaigarria zarealako.

Agur Marija...

6'gn. Karmelo'ko Ama neuria, bedeinkatuba ixan zaítezala ta ospetu zagixela, Goi-aingeruak, orbanbagiak eta Deunak zeure kutunaz zeure seme berarizkua egin nozulako.

Agur Marija...

7'gn. Ama neuria; neure bijotzeko Ama ta Bakaldun maitetuba: nik emoten deutzudaz, arimea, bijotza ta bixixatia, ta nai dot ospetu zagijezan onbidian jarraitzen dabenak eta gixatadi gustijak, zeure kutunaren bidez, zeruban ikusiko zaitudan itxaropena daukadalako; ez nagixu itxi ama maitia.

Agur Marija...





